

AMAIA ZUBIRIA

Amaia Zubiria Zubietan sortu zen, Gipuzkoan, 1947ko irailaren 11n. Aita sekula plazarik egin ez zuen ahots ederreko bertsolaria eta ama kantuzale iaioa izanik, ttikitatik izan zuen katurako zaletasuna. Halako batean *La voz de España* egunkariko argazki batean agertu zen , eta horrela jabetu ziren etxean Amaia gazteak abeslaria izan nahi zuela. Sekulako iskanbila izan zen etxean gurasoek ez zutelako nahi Amaia kantaria izatea.

Txomin Artola ezagutu zuen 70eko hamarkadaren erdi aldean eta Haizea taldean kantari gisa aritzea proposatu zion. Haizeak kontzertu aunitz eman zituen. Bi disko arrakastatsu grabatu zituzten: Haizea eta Hontz gaua.

Pascal Gaigne ezagutu zuen eta berarekin lanean hasi zen. Bikote artistikoa osatu zuten hainbat urtetan. Herri musika eta zinemarako musika landu zuten.

Gero bakarkako ibilbideari ekin zion.

Gaur egun kantuan segitzen du bere semeak, Edorta Murua Zubiriak, lagundurik.

Kantu ospetsuak: Prima Elijerra, Amonararen Menganza eta Lua Lua.

Prima Eljerra (Amaia Zubiria)

<https://lyricstranslate.com>

Prima eijerra

zutan fidaturik,

hanitx bagira

oro tronpaturik

Enia zirenez erradazu bai alez

bertsela

banua

desertiala, nigarrez urtzera.

Desertiala,

juan nahi bazira,

arren zuaza,

oi, bena berhala

Etzitiala jin berritan nigana

bertsela

gogua

doluturen zaitzu, amoros gaixua.

Egileak: Eider Zamora eta Naroa Zabaleta